

# Denentzako froga

Eusko Legebiltzarraren ostiraleko osoko bilkuran aliantzak egiteko nahia eta bere edukiak agerian geldituko dira

Jatorrizko testuari aurkeztutako gehitze, aldatze eta osoko zuzenketez gain, transakzionalek garrantzi handia izango dute

**D**enentzako froga izango da ostiral honetan EAeko Legebiltzarrean izango den eztabaida. Abiapuntua PSE-EEk maiatzaren 19an Eusko Legebiltzarrean alderdien arteko elkarrizketa mahai bat osatzeko aurkeztu zuen legez besteko proposamena izango da. Hasiera batean, EAJren norabide aldaketaren sinesgarritasuna neurtzeko frogazena, aurkeztutako zuzenketen bidez, bai PSE-EErentzat eta bai gainerako taldeentzat test garrantzitsu bat izango da. PSE-EEren proposamenaren benetako asmoa ikusteko, honako datua kontuan hartu behar da: alderdien mahaia osatzeko ez du eskatzen ETaren bortizkeria etetea. PSE-EE bilatzen ari den mahaia atentatuen garailetako mahai bat da (Ajuria Enekoa izan zen bezala), egoera horri «batasunetik» aurre egiteko. «Normaltasun demokratikoaren gutxieneko baldintzak sustatzea» edo «herritarren integrazio politikoa indartzea» kontzeptuak ildo horretan ulertu behar dira. Ezker abertzalearekiko elkar ulertze bidea alde batera utzita, EAJ eta EAren estrategiaren norabide aldaketa bideratzeko eta gauzatzeko tresna bat plazaratu du PSE-EEK. Gainera, Ramon Jauregik joan den astean Radio Euskadiko *Ganbara* saioan argi utzi zuen bezala, PSE-EEK ez du nahi EH mahai horretan izatea, eta bai, ordea, PP. Izan ere, laugarren puntua, «indarrean dagoen legeria onartzea eta errespetatzea» eskatzen duena ezin onartuzkoa da EHrentzat aipatutako inguruan (mahaia EAera mugatzen dela ahaztu gabe).

## EAJ-EAren zuzenketak

Ataka horren aurrean, EAJk eta EAK PSE-EEren jarrera frogatu nahi izan dute, euskal gizartearen borondatearekiko errespetua aipatzen duen esaldia gehitzeko zuzenketa bat aurkeztuz. Aliantza hori irudikatuz gero, ekarpen positibo batekin aurkezteko aukera atxiki nahi dute. Dena dela, EAJ-EAren zuzenketaren idazkera



Rodolfo Ares PSE-EEren taldeko bozeramailea eta Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Legebiltzarrean, maiatzean.

## Aurkeztutako zuzenketak

PSE-EEK Eusko Legebiltzarrean ordezkatura dauden alderdien arteko mahai bat osatzeko egindako legez besteko proposamenari honako zuzenketak aurkeztu dizkiote gainerako taldeek:

### Gehitze edo aldatze zuzenketak

**PP** • PPK zortzi zuzenketa aurkeztu ditu PSE-EEren testua gogortzeko asmoarekin (lau aldatzekoak, lau gehitzekoak). Funtsezko aldaketa honako hau da: osatu beharreko mahaian parte hartzeko, indarkeriaren erabilerari uko egiteaz gain, «erabiltzen edo babesten dutenen gaitzespena» gehitzea proposatzen du PPK.

**EAJ-EA** • PSE-EEren testuaren laugarren puntuan honako esaldia gehitu eta tarte-katzea proposatzen du: «[Eusko Legebiltzarrak argi uzten du indarrean den legeriarik] eta bere etorkizunari buruz erabakitzeke, euskal gizartearen borondatea eta modu libre eta demokratikoan hartutako erabakiak [gorde eta errespetatzea funtsezko baldintza dela...]. Beste hiru puntuak berdin geldituko lirarteke.

### Osoko zuzenketak

**UA** • UAK PSE-EEren proposamena laburtzeaz gain, honako baldintza eskatzen du

elkarrizketa prozesua hasteko: «Indarkeria terroristaren arbuio eta gaitzespena».

**EB-IU** • Jatorrizko proposamenaren lehen eta bigarren puntuak bere egin ondoren, «joko demokratikoaren arauen onarpena» eta indarkeriaren gaitzespenaren beharra kendu egiten ditu mahaia osatzeko. Hala ere, honako bi bikoitzak jartzen ditu: «Indarkeria adierazpen ororen etena» eta «demokratikoki adierazitako herri borondate libreaken errespetua».

**EH** • Lehenik, Lizarra-Garaziko Adierazpenaren balioa berresteko eta bere edukiarekin bat egiteko eskatzen du. Horrez gain, gatazkaren izaera politikoa gogoratzen du, eta osatu beharreko mahaiak Euskal Herri osoa ordezkatu behar duela argitzen du. Halaber, autodeterminazio eskubidea aipatzen du, eta Euskal Herriak bere etorkizuna erabaki dezan inongo bortizkeriarik gabeko baldintzak sortzea ezinbestekotzat jotzen du.

**EAJ-EA** • EAJk eta EAK batera aurkeztutako osoko zuzenketa Euskal Herriko alderdi guztiei zuzendutako elkarrizkeraren aldeko dei orokorra da, «aukera politikorik baztertu gabe eta horientzat aurretiaz mugarik ezarri gabe». Era berean, «bide politiko eta demokratikoen aldeko konpromiso argiak» berresteko eskatzen du zuzenketa honek.

hurbilago dago Ajuria Eneko Mahaiak 1996ko urtarrilaren 11n onartu zuen testutik («prozesu demokratiko batean euskal herritar gehienek iritzia legitimoki adierazi bada, indarrean dagoen ordenamendu juridikoak jaso behar du iritzi hori»), Lizarra-Garaziko Adierazpenetik baino («Euskal Herriaren etorkizuna nolakoa izango den euskal herritarrek beren hitzaren bitartez adierazi behar dute»).

### Transakzionalen aukera

EAJ-EAK aurkezturiko osoko zuzenketa bigarren alternatiba da, zeinak erdian gelditzeke edo EHrekin zubiren bat irekitzeko balio baitezake. EHk, bitartean, Lizarra-Garaziko edukia eta filosofia eraman ditu bere osoko zuzenketara, EAJ eta EAren koherentzia frogatzeko. Lehenik gehitze eta aldatze zuzenketak bozkatuko dira (PPkoak lehenengo eta EAJ-EAren ondoren) eta hor ikusiko da PSE-EE nora hurbiltzen den. PSE-EEK ez badu EAJ eta EAren gehitze zuzenketa sostengatzen, hiru aukera geldituko dira: EAJk, EAK eta PSE-EEK bat egitea jatorrizko testuaren alde; EAJ, EA eta EH bat etortzea osoko zuzenketen inguruan; edo akordio-rik eza (bakar batek ere aurrera ez egitea). Dena dela, zuzenketa transakzionalak aurkezteko aukera kontuan hartu behar da, eta horixe izan daiteke giltzarria (izan ere, PSE-EE atzo bertan hasi zen harremanetan PP eta EAJrekin). Transakzionala bi testuen arteko uztarketa da, eta biak ordezkatzeko ditu. Bi ardatz posible daude: PSE-EE-EAJ-EA eta EAJ-EA-EH. Zuzenketa transakzional batean adostea bereziki esanguratsua litzateke, akordio- borondatea erakutsiko lukeelako, baina azken unea arte ez dago jakiterik hori hitzartuko ote duten, osoko bilkurako eztabaidak dirauen bitartean negoziatzeko aukera baitago.